


# EUSKALTELEN INSTALAZIO- ESKULIBURUA

WiFi MESH



1119F0




ur121

1 111900 000522


euskaltel 

# WiFi MESH EKIPOAK KONFIGURATZEA


WiFi MESH-en KAXEN EDUKIA



WiFi MESH



KABLE-SAREA




ELIKATZE-ITURRIA




## LEHEN WiFi MESH-A KONEKTATZEA ETA KONFIGURATZEA

1. Konektatu Euskaltelen bideratzailea WiFi Mesh ekipo batera sareko kablearen bidez **1**. Berdinak dira; beraz, bata zein bestea hauta dezakezu.
2. Konektatu WiFi Mesh ekipoa argindarrera **2**.



3. Itxaron minutu batzuk. WiFi Mesh ekipoko argi berdea piztuta geratu bada, konfigurazioa amaitu den seinale.




# WiFi MESH EKIPOAK KONFIGURATZEA

## WiFi MESH GEHIAGO KONEKTATZEA

Lehenengo WiFi Mesh ekipoa bideratzaileari konektatu badiozu eta funtzionatzen baldin badu, WiFi Mesh ekipoa gehiago konekta ditzakezu. **Hala, wifi sare indartsu bat sortuko duzu etxean.** Horretarako, jarraitu urrats hauei konektatu nahi duzun WiFi Mesh berri bakoitzarekin:

1. Konektatu argindarrera **1** bigarren WiFi Mesh ekipoa. **Garrantzitsua:** Ongi lotzeko, lehenengo WiFi Mesh ekipoa bideratzaileari konektatuta dagoen gela berean egin behar duzu. Gero, beste gela batera eraman ahal izango duzu.
2. Piztuta dagoela, sakatu botoi urdina **A** bi WiFi Mesh ekipoetan. Minutu batera, bideratzaileari konektatuta dagoen WiFi Mesh ekipoarean argia berdea **B** izango da, eta beste ekipoarena urdina **C**. **Parekatuta daude.**





**3. Bigarren WiFi Mesh ekipoa etxeko beste gela batera eramán dezakezu **estaldura handitzeko**.**

Aski duzu argindarrera entxufatzea. Argia urdina eta estatikoa bada, ongi funtzionatzen duen seinale.

Argi urdinak dir-dir egiten badu, esan nahi du bi WiFi Mesh ekipook oso urrun daudela. Hala bada, bigarren ekipoa bideratzaileari konektatutako WiFi Mesh-etik ahalik eta hurbilen jarri behar duzu.

**Wifi sareak behar bezala funtziona dezan**, gehienez bi gelako tartea dutela egon behar dute WiFi Mesh ekipook.



# WiFi MESH KONEXIOA

## WiFi MESH SARE-KONEXIOA

Hemen duzu WiFi Mesh sare berria: **estaldura hobea, azkarragoa eta etenik gabe**. Konektatu harekin zure gailu guztiak (smartphoneak, tabletak, kontsolak, smart TVak...) eta egin hegan!

Zure WiFi MESH sare berriaren izena eta pasahitza zein diren jakiteko, begiratu bideratzaileari **konektatutako WiFi Mesh ekipoaren eranskailuan**.

(OHARRA: gainerako WiFi Mesh ekipoek ere badute eranskailua, baina zure bideratzaileari konektatua dagoen WiFi Mesh ekipoaren eranskailuan agertzen diren datuak bakarrik hartu behar dituzu kontuan).

Qr kode bat ere baduzu; eskaneatu zure smartphoneekin, automatikoki WiFi Mesh sarera konektatzeko.

Wifia (2,4/5G): **Wifia izena**

Wifia pasahitza:  
**contraseña**


  
MAC: XX-XX-XX-XX-XX-XX

  
DD-SN: ZTEXXXXYMDXXXX

  
QR WIFI



Nahiago baduzu, sareko kable bidez ere konekta zaitezke. WiFi Mesh ekipoek LAN motako 2 ataka dituzte, eta horietara sare-kable bidez konekta ditzakezu kontsolak, Smart TVak, ordenagailuak...



Wifi-esperientziarik onena izateko, hemendik aurrera **beti** zure **WiFi Mesh** sarera konektatzea gomendatzen dizugu. Komeni da bideratzailearen wifi sare zaharra desaktibatzea; hala, etxeko gailuak WiFi Mesh sare berrira bakarrik konektatuko dira. Erraz egin dezakezu **Euskaltelen aplikaziotik**. Mezu bat agertuko zaizu, erraz egin ahal izateko.

Eta, orain, gauza bakarra falta zaizu: Internet onena izateko esperientziaz gozatzea, Euskaltelen eskutik ;-)



# euskaltel

Gogoratu: zure esanetara gaituzu behar duzun guztietan.

**Aplikazioaren** bidez egin dezakezu, edo, nahiago baduzu, bide hauek erabiliz:

---

**[www.euskaltel.eus](http://www.euskaltel.eus) | dendak | Sare Sozialak | foroa**

---

WiFi Mesh instalatzean arazoren bat sortzen bazaizu, **deitu 900 840 440 doako telefonora (900 840 903, Euskaditik kanpo bazaude) eta lagunduko dizugu.**